

DS ESKABIDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- Eskabidea hori aurkeztu ahal izateko, **aldez aurretik 0-3 edo 3-7 eskabidea aurkeztu behar da**, jaiotzagatik, adopzioagatik, tutoretzagatik edo adopzio aurreko elkarbizitzarako harreragatik hileko laguntza eskatzeko. Eskatzailea pertsona bera izateko ahalegina egingo da, salbuespenak salbuespen.
- Eskabide horrekin, laguntza eragin duen semearen edo alabaren desgaitasun edo mendekotasunagatiko **hileko laguntzaren bikoiztasuna** eskatzen da.

1. Eskabide mota

- **Hasierakoa:** Laguntza eragin duen semearen edo alabaren desgaitasunaren edo mendekotasunaren berri emateko, 0-3/3-7 eskabidea aurkeztu ondoren aitortu zaionean.
- **Berritzea:** Aldez aurretik, laguntza eragin duen semearen edo alabaren desgaitasuna edo mendekotasuna jakinarazi zen, eta desgaitasuna edo mendekotasuna berrikusteko data iristean, laguntzak jarrai dezan eskatzen da.

Nork aurkezten du eskabidea?

- **Interesduna:** Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea.

Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza esleituta duen familia-unitateko kidea bada.

- **Ordezkarria:** interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada.

Kasu horretan, joan X. orrira eta bete ordezkaritza emateko dokumentua.

2. Eskatzailearen datuak:

Abizenek eta izenek ZEHAZKI bat etorri beharko dute NAN edo AIZ agirietan agertzen direnekin.

- **NAN/AIZ/Pasaporte:** Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko da. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzeritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportearen adierazi beharko da.
- **AIT:** AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzeritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

3. Bankuko datuak

0-3 edo 3-7 laguntza kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu nahi izanez gero bete soilik. Betetzen ez bada, ordainketak orain arteko banku-kontu berean egingo dira.

- Bete eskatzailearen banku-datuekin.
- Eskatzaileak **banku-kontuaren titularra** izan beharko du.
- Eskatzaile bakoitzak **kontu-zenbaki bakar**ra eduki ahal izango du laguntza-lerro honetarako, eta laguntza hauetarako soilik erabiliko da.
- Zure banketxea **EZ** bada: KUTXABANK, BANCO SANTANDER, LABORAL KUTXA, CAIXABANK, BBVA, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA edo ABANCA, kontuaren titulartasun-agiria aurkeztu beharko duzu.
- **Identifikatzeko pasaporte erabiliz gero:** Zure banku-erakundea edozein dela ere, kontuaren titulartasun-agiria eta pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dituzu.

Zer da kontuaren titulartasunaren dokumentua? Erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia eta nortasun-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaporte) jasotzen dituen banku-agiria.

4. Jakinarazpenetarako datuak

- Administrazioaren oharra eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatzen duen modua.
- Identifikazio-ziurtagiri elektronikorik ez baduzu, posta-komunikazioa aukeratzeko gomendatzen dizugu, bestela ezingo baitituzu eskuratu "Nire Karpeta" atalean zure esku jartzen diren jakinarazpenak:
- **Oharra:** 10 egunean jakinarazpen elektronikoan sartzen ez bazara, jakinarazpena ezetsizat joko da; hau da, izapidea egintzat emango da, eta prozedurak aurrera egingo du.

5. Desgaitasuna edo mendekotasuna onartua daukan seme edo alabaren datuak

- Laguntza eragin duen eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortu zaion semearen edo alabaren datuak dira, betiere adingabea bada.
- Berrikuspen-data: Desgaitasun- edo mendekotasun-ziurtagirian adierazten da.